

GUTUN IDEKIAK

"O R I X E" Jaunari.-

Euskaltzale goren:

Illobatxoak aitonarekin diarduten bezelaxe jardun nai genduke guk zurekin. Maitasun berberaz, eskerron ta ausardi berberaz. Ba-dakigu jakin zure omenez jaialdi lirain bat asma ta antola zula Euskaltzaindiak. Merezi ere ondo merezi zenu.

Leiza'ko artan gorputzez egoterik al izan ez guk, baiño nork edo zerk eragotzi gure gogoei bertaratzea? Entzungo al zitun Jainkoak zure alde jaso genizkion otoi biziak!

Pago zaar zaitugu, urtetsu ta zain bizitan. Gure basoetako pago sendoei darien lurrin gozo ta ezea dario zure baita gazte orri ere. Gu, berriz, zugan txertaturiko kima-berri bigunak gaituzu. Zugandik datorkigun zuats ernegarriari esker bizi gera. Pagoaren zain-izerdia igar dedinean, zer gertaturen txertu mengel oei? Bai, beneragarri ori, urteak eta osasuna, osasun bete, barne-gaztetasuna opa dizkitzugu illobatxuok. Irmo ta sendo ikus nai zinduzkete Aitagoi zaitugun ori!

Zuk ialki igalien mami atsegiña dastatu ez duan euskaldunik ez da. Geiegikeri ote litzake zure arnariz aziak generala aitortzea? Non arki ta gozartu euskal-bazka atsegiñagorik? Ba-duke euskal-gogoak non susper ta bizkortu, besteen larretara jo gabe.

Non baiña inutu zera zeu? Nondik datorkizu euskal-etortasun ori? Nondik zure ele miresgarriari darien euskal-ats ori? Zein sorgiñek-edo arnas damaizu, zure ele ori ain xoragarri gerta dakigun?

Neroni bailerit dirakurt, baiña nik diardudanean sorgin-antzo iges dijoakit. Zure olerki-etorriak nere baitara biltzen nau. Neure-neure ditudan kera ta sentipenak iraularazten dizkidatzu. Zure oorietan barna euskaldunok geron etxe-barruan bezela sentitzen gera, etxegiro berberak biltzen gaitularik.

Etorkizunak balietsiko al du euskal-elertiari eman diozun bultzada ta arnasa. Gizapiderako baldar ta moldakaitz zirudian gure euskera zaarra, ia erabat landua dakusgu zure egiñal ta jokabide burutsuei esker. Gure euskerak bear zun buru argia, irudimen bizia, biotz ukigarria zugan arkitu ditu. Gure euskerak bere erpiña zurekin jo ez ote duan nago.

Noizpait gutzaz "Erri bat izan zan" esan al badedi ere, inork suntsitu ez dezaken euskal-arrasto bat iraririk utzi duzu. Geroan-geroan agian inortxok uler ez dezakeana. Or "Euskaldunak" ortan betikotu gaituzu. Bertan dakiteke ondoenik "Erri bat izandakoaren" berri. Euskaldunok izan-gerana, bizitakoa, sentitutakoa, maitetakoa ortxen dager apal-apal, geientsuen ezjakiñean. "Erri bat izan zan"... Orain arte iraundako erri onen barne-kondaira zuk bildu diguzu liburu miraritsu batean. Nork abesturen digu Erri onen illunabarra?...

"Edo ta ats emalogun, ontan iraun dezan"... Zugan dugu eredurik bikaiñena. Zu zaitugu gure asmo ta indarren ats-emalle. Atsegin zaizuke, noski, zure atzetik aal berriak ba-datozela jakitea. Maite dugun erri onen atsemalle nai genduke izan guk ere, zure ta gure atsari esker Erri onek betiraño "ontan iraun dezan"!

Agur!, eta Urte Berri on! Maite ta miresten zaitugun gazteok.

Bastarrika'tar Iñaki

-Arantzazu-